

"Zientzia Forgesen arabera", zientzia bineten bitartez lantzen duen erakusketa

Binetagile ezagunaren irudiak biltzen dituen erakusketa Bilbo Zientzia Plaza ekimenaren parte da eta Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiaren (CSIC) eskutik heldu da Bilbora.

UPV/EHUko Bizkaia Aretoko Etxepare gelan ikusgai egongo da irailaren 11tik 30era.

Bilbo, 2023ko irailak 8. Antonio Fraguas "Forges" umorista grafikoak behin eta berriz islatu zituen bere binetetan klima-aldaketa, Higgsen bosoiaren aurkikuntza edo biodibertsitatearen galera. Gai horiek sarritan landu zituen zientziarako baliabide gehiago eskatzen zituen bitartean.

Lan horietako askok osatzen dute "*Zientzia Forgesen arabera*" Bilbon ikusgai egongo den erakusketa. *El País* egunkarian 1995 eta 2018 urteen artean argitaratutako 66 bineta biltzen dituen esposizioa da eta, bertan, Forgesek gai unibertsalei buruz egindako interpretazio berezia islatzen da; hala nola, bizitzaren jatorria edo giza eboluzioa. Egileak, bere marrazki eta testuen bidez, Arkimedesen Printzipioa edo zulo beltzen teoriak jorratzen ditu. Newton, Darwin edo Einstein bezalako zientzialari ospetsuei eskainitako binetak ere aurki daitezke edo aurrerapen teknologikoez Cervantes txiolari edo "koinatu robot" baten bitartez hitz egiten du.

2018ko otsailean hil zen Forgesek hainbat bineta egin zituen erakunde zientifikoentzako, ikertzaile-komunitatearentzako arreta eta baliabide gehiago eskatuz. Horren adibide dira aurrekontu-murrizketak edo betiereko bekadunen egoera salatzen dituzten tirak. Hortaz, zientzia, umorea eta kritika soziala biltzen dituen erakusketa da.

Erakusketa ikusgai UPV/EHUko Bizkaia Aretuan

Erakusketa UPV/EHUko Bizkaia Aretoko Etxepare aretoan egongo da ikusgai irailaren 11tik 30era bitartean. Astelehenetik ostiralera 8:00etatik 20:00etara, larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara bisitatu ahal izango da.

Erakusketa [Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) antolatutako [Bilbo Zientzia Plaza](#) ekimenaren parte da eta [Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko \(CSIC\)](#) Kultura Zientifikoko Lehendakariordetza Ondokoak ekoitzi du. CSIC Fundazio Orokorren laguntza izan du, "Cuenta la Ciencia" laguntza-deialdiaren bidez. Alcalako Unibertsitateko Fundazioaren parte den Antoni Esteve doktorearen eta Quevedo de las Artes del Humor institutuaren laguntza ere izan du.

Harremanetarako: komunikazioa.kzk@euskampus.eu

+34 688 67 38 89

“La Ciencia según Forges”, una mirada a la ciencia a través de las viñetas

La muestra, que expone la visión del icónico viñetista, se enmarca dentro de Bilbo Zientzia Plaza y llega de la mano del Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC).

La exposición se podrá visitar en la sala Etxepare de Bizkaia Aretoa UPV/EHU desde el 11 al 30 de septiembre.

Bilbao, a 8 de septiembre de 2023. El humorista gráfico Antonio Fraguas, *Forges*, plasmó de manera recurrente en sus viñetas el cambio climático, el descubrimiento del bosón de Higgs o la pérdida de la biodiversidad. Temas que ilustraba en sus tiras al tiempo que más recursos para la ciencia.

Gran parte de esos trabajos componen la exposición “La Ciencia según Forges”. Es una muestra que incluye 66 viñetas publicadas en el diario *El País* entre 1995 y 2018. Su contenido refleja la particular interpretación de *Forges* sobre cuestiones universales como el origen de la vida o la evolución humana. El autor, mediante sus dibujos y textos, se detiene en descubrimientos y teorías como el Principio de Arquímedes o la teoría de los agujeros negros. Unas viñetas que también dedica a eminentes científicos como Newton, Darwin o Einstein y en las que los avances tecnológicos llegan de la mano de un Cervantes twittero o un “robot de cuñado gorrón”.

Forges, fallecido en febrero de 2018, también dedicó muchas viñetas a reclamar mayor atención y recursos para las instituciones científicas y la comunidad investigadora. Esta reivindicación también está presente en dibujos que aluden directamente a los recortes presupuestarios o los eternos becarios. Una exposición, por lo tanto, que aúna ciencia, humor y también una crítica a la situación precaria de la ciencia.

Exposición en el Bizkaia Aretoa UPV/EHU

La exposición se podrá visitar en la sala Etxepare de Bizkaia Aretoa UPV/EHU del 11 al 30 de septiembre de lunes a viernes entre las 8:00-20:00, entre las 10:00-14:00 y 16:00-20:00 los sábados y entre las 10:00-14:00 los domingos.

La muestra se enmarca dentro de [Bilbo Zientzia Plaza](#), iniciativa organizada [por la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU](#) y ha sido producida por la Vicepresidencia Adjunta de Cultura Científica del [CSIC](#). Una muestra que ha contado con la colaboración de la Fundación General CSIC a través de la convocatoria de ayudas "Cuenta la Ciencia", así como con el apoyo de la Fundación Dr. Antoni Esteve y del Instituto Quevedo de las Artes del Humor, perteneciente a la Fundación General Universidad de Alcalá.

Contacto: komunikazioa.kzk@euskampus.eu

+34 688 67 38 89